



ELIKAGAI BANKUA ELKARLANEAN

Zaintza Sare Herriarretik astelehenean argitaratu genuen oharrean genion bezala, Caritas, Harreman eta Udalarekin Elikagai Bankua berriz martxan jartzeko elkarlana abiatu dugu.

Elikagai Bankuak Arrasateko 600 herritar ingururi eskaintzen die zerbitzua eta martxoaren 11tik itxita egon da. Azken asteetan, Gurutze Gorriarekin zein Caritasen Bidean egitasmoarekin Elikagai Bankua martxan jartzeko beharraren inguruan hitz egin dugu, eta guztiok adierazi diogu Udalari hau aktibatzeke beharra. Azkenik, joan den astean Udala eta Harremanekin egindako bileran hori aurrera eramateko modua josi genuen, azken banaketatik bi hilabetera.

Gaur Udalak argitaratutako prentsa oharrean, Arrasateko Elikagai Bankua berriz martxan jartzeko ahaleginetik kanpo utzi du Zaintza Sare Herriarra. Gure parte hartzea “zerbitzu” hau emateko laguntza gisa aurkeztu du. Udal Gobernuarekin izan dugun harremanean behin eta berriz azpimarratu dugu gu ez gatzela Udala laguntzera. Zaintza Sare Herriarrak elkarlanean aritzeko eta egoera honetan dauden zaintza beharrei modu komunitarioan erantzuteko helburua dauka. Elkarlana ez da batek eskatu eta besteak ematea, baizik eta elkarrekin egoerak aztertu, eta lankidetzan erantzunak ematea. Guk horretan sinesten dugu eta horretan ari gara, gure denbora, indarra eta konpromisoa egoera honi modu komunitarioan erantzuteko ahaleginean jarriz.

Arrasateko Udalak “eskaera” hau egin zigunean, argi eta garbi adierazi genion zein den gure filosofia, eta ekimena guztion arteko elkarlan gisa ulertzea eskatu genuen.

Udalari eskatzen diogu, zerbitzuak hartu-emateko logikatik elkarlanaren eta benetako auzolanaren logikara pasatzeko ahalegina egin dezala. Elkarlanean ez dago hierarkiarik. Denon arteko elkarlana da, edo ez da elkarlana, eta ez da bidezkoa udalak ekimena bere egitea eta protagonismoa eskuratzeko baliatzea (bide batez Elikagai Bankuaren aktibaziora beranduegi iritsi gara alde guztiak). Herrian auto-antolatutako ekimen komunitarioak gutxiestea eta modu interesatuan erabiltzea larria dela uste dugu, gehiago krisi egoera honetan.

Erakunde publikoek ardura berezia eta zuzena daukate krisialdi honen kudeaketan, baina kontua ez da nork salbatuko gaituen, krisialdiaren ondorioak beti bezala betikoek ez pairatzean dago gakoa. Horretarako, etorkizunean ere elkartasun eta zaintza eredu komunitarioa da erdigunean jarri beharko duguna.

Elkar zaindu dezagun